# Itsas zabalean zabalago garelako

## Gure jaun kapitaina

Lapurdiko Ziburu Herrian ikasia. Itsasoan galduriko mariñelen batek sortua omen.

**Musika: Herrikoia - Alex Blasco**
**Hitzak: Herrikoia**

Bordeletik yoan ginen uraren gainean
Saint Paul izena zuen ontzi ederrean.
Erten kapitaina zen gurekin batean.
Calcutara arribatu osasun onean.

Gure yaun capitaina an zeraukun eritu,
sukar batek baitzuen lanjeroski artu;
noiz eta ere baitzen apur bat sendatu
Marsileko alderat ginen abiatu.

Azilaren ogoia partitu ginena
asteazkena baizuen egun argi zena,
itsas zabalean guk baginduen lana:
orduan autsi zeraukun ontziaren lema.

Abenduaren seian kalo bat trenkatu
eta untziak laster bide makur artu.
Ahal nola baitugu geroztik gidatu
aizeak ezpaikaitu ainitzik lagundu.

Bordeletik yoan ginen uraren gainean
Saint Paul izena zuen ontzi ederrean.
Erten kapitaina zen gurekin batean,
Calcutara arribatu osasun onean.

## Charmegarria zira

1925.ean Rodney A. Gallop-ek "Ustaritz" herrian jaso eta Fanny Sanestebenek ikasitako kantua.

**Musika: Herrikoia - Josean Martín - Alex Blasco**
**Hitzak: Herrikoia**

-"Charmegarria zira eder eta gazte,
ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
Bertze zembait bezala, othe zira libre?...
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke."

-"Churi gorria zira, arrosa bezala:
profetak ere dira mintzo hola hola.
Araberan bazinu gorphutza horrela,
irudiko zinuen... zeruko izarra."

-"Oi maitea, zatozkit, plazer duzunean,
nehork ikusi gabe, ilhun-nabarrean:
lagun bat badukezu joaiteko bidean
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean."

-"Plazer eginen duzu, ichiltzen bazira,
haur inorantak hola trompatzen baitira;
ez da enetzat ona holako segida...
bertzalde zure baithan ez naiteke fida!"

## Etxarriko soka dantza

Nafarroako Etxarri-Aranaz herrian jasotako dantza doinua. Aspaldian, gizonek soilik dantzatzen zuten. XIX. mendearen erditik aurrera, hala ere, emakumeek ere hartzen zuten parte bertan, andrazkoek dantza zezaketen bakarra berau izaki.

**Musika: Herrikoia - Josean Martín - Alex Blasco**

## Festa bihotzean

Mixturatan blai eginda nengoen eta maindire artean bilduta gauerdia noiz iritsiko ilargiaren distiraren zain gelditu nintzen.
Egunsentian ametsetatik iratzarri nintzen, oraindik ere nire gogoan basoko akelarrearen kantuak sumatzen nituen.

**Musika: Alex Blasco**
**Hitzak: Garbiñe Benítez**

Argizari eder bat pizturik
lehioak zabalik,
nire barneko lore gaztea
kanpoko egarriz.

Dantzan, dantzan, gorputzak dantzan,
dantzan, dantzan, ase artean.
Dansent, dansent, dardar-ikaraz,
hara nazazu bertan.

Su gorri, su hori, urre gorri
odola su gorri.

Dantzan, dantzan, itzalak dantzan,
dantzan, dantzan, lehertu artean.
Dansent, dansent eta haizeak dantzan,
libre naiz airean...

Argizari ederra basoan
itzal itzalean
nire lorea loretan eta
festa bihotzean.

## Argizirrintako koplak

Itxaro Bordak idatzitako maitasun kantu gozoa.

Maitasun kantu asko ezagutzen genituela uste genuen, baina hau hain da ederra...

**Musika: Josean Martín**
**Hitzak: Itxaro Borda.**

Gazteluko harresietan
jeikitzen apirila oroz
goizaren hats epela sasietan
betidanik zutaz amoros.

Zeruaren arrosa ixur
dadila karriketan zehar
argizirrintaren ederra bihur
dakigun amodio behar.

Eki-leinuru samurrean
ezti altxatzean goiza
koropilatzen dut ahurrean
musu zilarren oroitza.

Ehun urte iragan dira
denbora geldirikan dago
zeruko hodei arinei begira
keinu baten haiduru nago.

Eki-leinuru samurrean
ezti altxatzean goiza
koropilatzen dut ahurrean
musu zilarren oroitza.

Auto hotsek ixila hausten
beldurra daukat bihotzean
argizirrinta bekaitza errausten
dabilan ahanzmen hotzean.

Argizirrintaren ederra bihur
bekigu amodio-ikur.

## Mare Nostrum

**Musika: Josean Martín**
**Hitzak: Itxaro Borda**

Itsasoa, hain urruti dago,
lur lehorren eremua baino,
itsasoa, ortze-mugan laino
zuri beha nago,
auhenetan hedatzen oraino,
zeruraino.

Lur lehorrak higatzen
gauerdi lakarretan,
haize-ertzoaren meneko
hats azkarretan;
Isurtzen da atsanga
gero ura larretan
untzi beltzak haiduru daudela
portu zaharretan.Lur lehorra, hain hurbila nago
itsasoen eremua baino,
lur lehorra, bihotz mugaraino
zuri beha nago
lautadetan hedatzen oraino,
errauts laino.Uhinak ixilean lur lehorraren kide:
bazterrez-bazter ezpondak gaitu
hazten haurride.

Lur lehorra, hain urruti dago
zikoinaren hegaldia baino
itsasoa, hain hurbila dago.

## Belatsa

Hitzik gabeko doinua berau, Orhi mendiko artzainek erabili ohi dutena belatsaren hegaldia imitatuz.

**Musika: Herrikoia - Alex Blasco**

## Lainopeko herri

**Musika: Josean Martín - Alex Blasco**
**Hitzak: Joserra Gartzia.**

Goiz jaio berriaren, begi argitan,
belatsa badator, airean dindilan.

Utzitako kabia, amets gogoan
eguzki printza bat
darama mokoan.

Ene Euskal Herri, amets iturri,
atzerri beteko, aberri.

Kaiu karrankariak,! ongi etorri!
esan, arren, kaiu, herrian zer berri?

Horra hor beheko itxas, zabal zuria
ikarazko laino, ikaragarria.

Lainopeko herrian, ilusioak
aspaldi hil ziren, lainotan itoak.

Ene euskal herri, malko iturri,
aberri beteko, atzerri.

Mokoan amets printza, izu batean
belatsa badoa, lainoen artean.

## Bihotz erratua

Kantu honen konposaketarako, Raimundo Sarriegiren Donostiako ihauterietako dantzetan agertzen den melodia ezagun batetan oinarritu gara.

**Musika: Josean Martín**
**Hitzak: Jesusmai Lopetegi**

Hedatuz doa gris-okrea zeruan
eguzkiak agurtu du eguna,
ene untziak noraezean izanik
kaieratzen da taberna ingurura,
neoi-argien islada karrika umeletan
bihotz erratuen zama, aterpe baten bila,
babes bila.

Ostatuko barraraino narama
indar itsu ezezagun batek,
ardoaren inguruan datza
oroitzapen sarri baten kanta.
Non galtzaileak ez duen inoiz hitzik hartzen,
non ahantzi egiten diren, maitasun ezaren
une latzak.

Ene untziak, lema hondaturikan,
geroaz ez du ametsik egiten,
salbu bedats eguzki epeletan,
non barne indarrek batu ohi diren.
Hotzikarak, birjaiotzak, sentittu ditzaket,
haran berrien taupadak,
urtaroa aldatzen...
non galtzaileak ez diren sekulan agertzen,
non existitzen ez diren, maitasun ezaren
bide latzak.

## Xibandriak

"Xibandriak" deituriko jauziak, Euskal Herria eta bera aldeko hainbat lekutan izan dira dantzatuak. Halere, Baxe Nabarran eta Zuberoan eutsi diote berorren musika eta mugimenduen oroimenari. Oraindik ere, badira zenbait agure-atso dantzari hartaz mintzatzen direnak.

**Musika: Herrikoia - J. Martín - A. Blasco - I. Garmendia - J. A. Lorán**

## Geltokirik gabeko trenbideak

Bost bider zortziko melodiaren erritmoan trenean goazela dirudi eta duda-mudatan ibili gabe bertara igo gara, irudimenezko geltoki hori noiz iritsiko.

**Musika: Herrikoia - Alex Blasco - Josean Martín**
**Hitzak: Joserra Gartzia.**

Zer ote da zalaparta handi hau?
Nondik dator? Zergatik, sortzen da?
Zer gabiltza, baina, zalaparta
zalapartaz estali nahian?

Non ote da gure barne ahotsa?
Zer dela-ta ez dugu entzuten?
Gor al dira, bada, belarriak?
Ala gure bihotza mutu?
Atergabe zer dihardute hitzek,
ez badugu deus ere aditzen?
Nork ez daki, jakin, ezin dela
barne hutsa hitz hutsez bete?

Nondik nora, zeren ihesi goaz?
Zein da gure beldurraren kausa?
Bake bila zertan urrun joan,
iskanbila gugan dugula?

Abiada itsuko tren honetan
trenbideak nora garamatza?
Ez al dauka inork frenatzerik?
Geltokirik ez al da inon?

## Bide amaiezina

**Musika: Josean Martín - Alex Blasco**
**Hitzak: Garbiñe Benítez**

Zabal ditzagun begiak
denak ados bagoaz hara,
itsasoaren usain finak
indartzen ditu geure sasoiak,
itsasoaren berdetasunak
liluratzen du geure ametsa.

Izerdi, malko, zailtasuna,
harriz josita dago bidea,
hautsez beterik geure gorputzak
izerdiekin nahasten dira,
malkoen zapore garratza
irrifar batez aldentzen da.

Ene maite, maite xarmanta,
loratzen duzu nere bizitza,
zutaz oroitzen naizenian
aldentzen dira zailtasunak,
utzi daukadan dena ematen
hemen nauzu izerditan.

Bide hontatik pausoz pauso,
zenbat aldiz oroitu naizen
munduan ez gaude bakarrik
denak goaz elkarturik,
utzi daukagon dena ematen
gaitz guztiak zapaltzen.